




**Bergarako ondare ez-materiala
sarean jartzeko proposamena**

Bergaraonline 6179

Bergarak oso ondare artistiko-historikoa aberatsa du. Gure herriaren ezaugarrietako bat "herri monumentala" izatea da: alde zaharra orokorki, eraikin singularrak... dena ondo zainduta eta bertakook eta kanpotik datozenek goatzeko modukoa.

Baina badu gure herriak beste ondare bat ez dagoela egoera berdinean, hau da "ondare ez-materiala" deitzen dena.

Zer da ondare kulturala ez-materiala?

Unescok, hezkuntza, zientzia eta kulturarako Nazio Batuen erakundeak, kontzeptu honen definizio garbia eman du:

La Convención para la Salvaguardia del Patrimonio Inmaterial de la UNESCO (París, 2003) establece que el patrimonio cultural inmaterial se constituye por los "usos, representaciones, expresiones, conocimientos y técnicas -junto con los instrumentos, objetos, artefactos y espacios culturales que les son inherentes- que las comunidades, los grupos y en algunos casos los individuos reconozcan como parte integrante de su patrimonio cultural",

El patrimonio cultural inmaterial infunde un sentimiento de identidad, se transmite de generación en generación y es recreado constantemente por las comunidades. La UNESCO, sin llegar a establecer categorías ni clasificaciones cerradas, afirma que este patrimonio se manifiesta particularmente en los siguientes ámbitos:

- Tradiciones y expresiones orales, incluido el idioma
- Artes del espectáculo
- Usos sociales, rituales y actos festivos
- Conocimientos y usos relacionados con la naturaleza y el universo
- Técnicas artesanales tradicionales

Gure proiektuak ezin ditu adierazitako kontzeptuaren atal guztiak batu, baina erabiliko ditugun proposamen guztiak Uneskok emandako definiziaren barruan sartuta daude, zalantzarik gabe.

Ondare ez-materiala eta Internet

Bergarak ondo hornitutako liburutegia dauka eta baita ezin hobeto kudeatutako artxibo historikoa ere. Hala ere, badaude gauza batzuk oraindik inon ere jasota ez daudenak, eta nolabait batuak izateko beharra dutenak. Hurrengo ataletan gai hau gehiago garatuko dugu.

Bestalde, lan honen planteamendua, ondare ez-materialaren zati garrantzitsuena interneten jasotzea da. Horrela bi helburu lortuko dira aldi berean:

Lehenengo eta behin, oso eskuragarri egongo direla eta zabalkunde handiagoa izango dutela.

Bigarrenik, beste jomuga oraindik interesgarriago bat lortuko da; arriskuan dagoen ondare arlo bat betirako ondo gordeta egotea. Aipatzen dugun arriskuak, batez ere, ikus-entzunezko baliabideekin du zerikusia. Askok ezagutu ditugu binilo diskoak eta kaseteak. Orain badakigu euskarri horietan dauden materialak ia ezin direla entzun, behar duten aparatuak dagoeneko ia desagerturik daudelako. Berdin gertatzen ari da hain hedatuak izan ziren VHS bideo-zintekin. VHSn dauden pelikulak hemendik gutxira inon ere ezingo dira ikusi, etxeko bideoa ze goen lekuan orain DVD irakurgailuak daudelako. Baina hauek ere teknologia zaharkituak dira. Jakinekoea da CDak eta DVDak ere etorkizun antzekoa izango dutela, eta aurrerago baita Blu-ray-ak ere.

Gaur egun, edozein ikus-entzunezko baliabideren bizitza bermatzen duen soporte egokiena Internet sarea bera da, amaigabea eta guztion etxetik eskuragarria. Ez etxetik bakarrik, poltsiko bertatik, ia denok ditugun *smartphonei* esker.

Hain modan dagoen *Ipak* baten mahai-gaina portadan erabiliz, aurretik emandako konzeptuak grafikoki adierazi nahi izan ditugu, umore puntu batez.

Antzerako eskema erabiliz gure proiektorearen zehaztapenak azalduko ditugu.



Bergaran bi ereserki ofizial daude:

San Martinen Ereserkia eta *Bergarako Ereserkia*. Lehenengoa, izaera erlijiosotik aparte, kaleko jaietan erabiltzen da honekin zabaltzen baitira, ofizialki, San Martinak.

Bigarren ereserkia modernoagoa da eta bere izaera zeharo zibila da. CD-an badago, Udal Musika Bandak grabatuta, baina bertsio instrumentalean baino ez.

PROPOSAMENA:

***San Martinen Ereserkia* eta *Bergarako Ereserkiaren* ahotsaren pista grabatzea abesbatzak grabatuta, eta interneten jartzea MP3 formatuan, bai bertsio instrumentala eta baita ahostuna ere..**

Aurrekoekin batera, ereserki bien hitzak interneten idatzita jasotzea.



Herrian musika talde asko dauzkagu. Denek dituzte bere kontzertuen grabaketak. Batzuk CD-an argitaratuta daude, baita DVD-an ere. Hala ere, talde bakoitzak izango ditu inoiz argitaratu gabeko grabazio propioak, eta jasota gorde eta hedatuak izateko interesgarriak izan daitezke.

Arlo honetan sartu ditzakegu baita ere Bergarako kanta tradizionalak eta bertan abesten ditugun gabon kantuak.

PROPOSAMENAK:

Herriko taldeek argitaratutako CDak MP3 formatura pasatzea.

Herriko taldeek dituzten grabazioak jasotzea eta MP3 formatura pasatzea.

Bergarako kanta edo gabonetako abesti tradizionalak jasotzea eta grabatzea.

Jasotako MP3 guztiak interneten zintzilikatzea.



. Bergarako tradizio berezia du danborradako martxekin. San Martinen Martxaz gain, melodia desberdin asko entzun ahal izaten dira, elkarte askok eta askok bere martxa propioa dutelako. Kontuan hartu behar da, gainera, martxa hauek, normalean bere letra izaten dutela.

Martxa asko grabatuta daude, baina bakarren bat, ez. Hala ere, egin diren grabazio guztiak instrumentalak dira. Interesgarritzat jotzen da letra hauek ere grabatzea.


PROPOSAMENA:

Falta diren elkarteen martxa instrumental guztiak grabatzea.

Martxa guztien hitzak grabatzea. Batzuk abesbatzekin, beste batzuk bakarlariekin.

Grabatuta dauden martxa guztiak MP3 formatura pasatzea eta interneten jasotzea.







Aurrekoekin batera martxen hitzak interneten idatzita jasotzea.



Bergarako liburutegiak 36.000 bolumen ditu gutxi gora-behera, Udal Artxiboak, berriz, 60.000 erregistrotik gora. Honek adierazten du badagokela aukera liburuak edo dokumentazioa eskuratzeko. Bere fitxak interneten bidez kontsulta daitezke batzuetan, baina, nola ez, dokumentua bera irakurtzeko, liburutegian edo artxiboan bertan jaso edo irakurri behar da.

Teknika berrien bidez dokumentu edo liburuak interneten gorde daitezke bere osotasunean.

Bergaran argitaratuta dauden liburu batzuk tratamendu berezia merezi dutela uste dugu. Batzuk liburutegian kontsultatzeko daude, beste batzuk udaletxeko bulegoetan, baina badaude ia inon lortu ezin direnak ere: Hona hemen zerrenda indikatibo bat:





Proposamenak:

Bergarari buruzko liburuak batzea eta digitalizatzea (berrienak modu digitalean egongo dira jada).

Liburuak PDF-n interneten zintzilikatu.

Eredu bat: <http://www.memoriadigitalvasca.es>







Aurreko puntuarekin lotuta, badaude oso garrantzitsuak diren liburuak: Bergararren biografiak.

PROPOSAMENAK:

Bergararren biografiak batzea eta digitalizatzea (berrienak modu digitalean egongo dira jada).

Biografiak PDF-n interneten zintzilikatu.






**Argazki
zaharrak**

Udal artxiboan milaka argazki zahar egongo dira eta, batez ere, bergararren etxeetan.

PROPOSAMENA:

Artxiboko argazki garrantzitsuenak edo interesgarrienak sarera jaso.

Herritarrei argazki zaharrak digitalizatu eta sarera jasotzeko aukera eman.




Bideoak

Udal artxiboan pelikula zaharrak egongo dira eta, batez ere, bergararren etxeetan.

PROPOSAMENA:

Artxiboko pelikula garrantzitsuenak edo interesgarrienak sarera jaso.

Herritarrei Bergararekin lotura daukaten pelikula interesgarriak digitalizatzeko eta sarera jasotzeko aukera eman.





Normala den bezala, arte plastikoak beti aurreratuta egon behar direnez, Bergarako artista batzuk beraien lanak interneten zintzilikatzen dituzte .
Beste batzuk, berriz, ez.

PROPOSAMENA:

Web edo blog-ak dituzten artisten loturak jartzea.

Web-orriak ez duten artistei beraien lanak interneten zintzilikatzen laguntzea.

Hona hemen Bergarako artisten eredu batzuk:



<http://ricardoazkargortacelaya.blogspot.com.es>



<http://pilirenkoaderno.blogspot.com.es>



www.lascurain.es



<http://www.dezerio.com>



<http://www.nahikari.com>



Egunkariak



Aldizkariak





Bergaran argitaratu diren zenbait aldizkari herriko historia-
ren lekuko aparta dira: Arizondo, adibidez, 70. Eta 80. ha-
markadan argitaratua.

Berrigara edo Goienkaria, gaurko Goienako aurrekoak, his-
toriaren zati batean ere badaude.

PROPOSAMENA:

Aldizkariak digitalizatzea eta interneten zintzilikatzea.

Egunkarietako Bergarari buruzko artikulak interesgarriak digitalizatzea eta interneten zintzilikatzea.





Antzerkiak

Bergarak badu tradizio garrantzitsua antzerki arloan, ikuskizun eszeniko musikaletan batez ere. Gehienak bideoan grabatuta daude, baina hauetatik asko VHS-n.

PROPOSAMENA:
Ikuskizunak digitalizatzea (MP4, AVI edo antzerako formatuan) eta interneten jasotzea.



san martzial ikuskizuna

bergara 88



Apirretar San Martinen heriotzaren
400. urteurrenean
Bergarako Herriak
aurkezten du

1597
1997

**San
Martin
Estanta**

Satu eta bildumazaleen Elkartean
San Martinen erakusketaren irudiak ere baditu



Miserableak




10 KURTSA



Bergarako Orfeoia


Oliver!

Diketa grabatzen: Jaume Mankel



**Seuss
en
Mundua**


**DIBOIA EUSKALDUNA
ANTZERKIA**



Miserableak



Bergarako Udala antzerkiak
2008ko martxoaren 14an



**Olentzero
& Co!**

**Polka
Musikala**

DVD



Bergarako Musika Eskolak
aurkezten du

*Musikal magikoa
lehenengo aldiz euskaraz!!*

Peter Pan
musikala

Horrelako lana eginez gero, udal zerbitzuetara loturak egitea proposatzen dugu, baita ere.



Artxibo

<http://bergarakoartxiboa.net>



Liburutegia

<http://www.bergara.net/Udala/Antolaketa/Biblioteka>



Turismo

www.bergaraturismo.net



Museoa

(Zabalduta gabe)